

**BERMEOKO UDALEKO HERRI-ARGITERIA INSTALAZIOEN ENERGIA-ZERBITZUAK,
MANTENU ETA BERME OSOAREKIN****KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA (5)**

Bermeoko Urian, Gizarte eta Kultura Etxeko Gaztelekuko lokalan, 2017ko martxoaren 17an, goizeko 8:45ak direnean, batzar publikoan batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J^a, Mahaiburua
Aritz Abaroa Cantuariense J^a, zinegotzia
Amaia Elorza Elortegi A^a, zinegotzia
Xabier Ortuzar Butron J^a, zinegotzia
Sergio Ugalde Zabala J^a, zinegotzia
Karmele Muñoa Arrigain A^a, Udal Idazkaria
Edurne Urrutia Uriarte A^a, Udal Kontuhartzailea
Igor Santa Eufemia Bordas J^a, Kontratazio mahaiko idazkaria.

Batzar honetarako, Zerbitzu saileko teknikaria, aholkulari moduan, egotea eskatu da.

Lizitatuzaileen aldetik, gonbidapena jaso ondoren, honako enpresen ordezkariak bertaratu dira:

- Clece, S.A.
- New Energy Concept 2020, S.L.
- Sociedad Iberica de Construcciones Eléctricas, S.A. (SICE)
- Tecuni, S.A.
- UTE Etra Norte - Etralux
- Valoriza Facilities, S.A.U.

Batzarra hasirik, Zerbitzu Saileko teknikariak lizitatuzaileen "B" gutun-azaleko dokumentaziori egindako balorazioaren berri ematen da:

Lizitatuzailea	B gutun azaleko dokumentazioaren balorazioa
Giroa	1,5
Gamma Solutions	8,25
Tecuni	47
New Energy Concept	6,5
Fcc-Soprener	15,75
Sice	16
Clece	16



Etralux - Etranorte	1,5
Valoriza Facilities	22,25
Elsamex	4,5
Imesapi	14,75

Ondoren "C" gutun-azalak zabaltzen dira honako proposamen ekonomikoak (BEZ kanpo) aurkeztu direla egiztatuz. Hauek dira aurkeztutako eskaintzak:

ENPRESA	Eskaintza ekonomikoa (urteko)	Eskaintza ekonomikoa (kontratua)	Ehuneko gehigarria %	P4 gauzatzeko epea	P4 gauzatzeko epearen urritzea
GIROA	237.730,67 €	2.852.768,04 €	90	12	12
GAMMA SOLUTIONS.	244.425,98 €	2.933.111,76 €	2,1	8	18
TECUNI	257.278,93 €	3.087.347,16 €	90	14	12
NEW ENERGY CONCEPT	210.969,06 €	2.531.628,71 €	90	20	4
FCC-SOPRENER	200.599,38 €	2.407.192,56 €	90	12	12
SICE	200.565,10 €	2.406.781,20 €	90	12	12
CLECE	186.354,68 €	2.236.256,17 €	90	16	10
ETRALUX - ETRANORTE	213.582,50 €	2.562.990,00 €	40	12	12
VALORIZA FACILITIES	187.843,00 €	2.254.116,00 €	90	12	14
ELSAMEX	220.869,54 €	2.650.434,48 €	4	16	8
IMESAPI	207.120,18 €	2.485.442,16 €	15	18	10

P4 gauzatzeko epeetan, asteen kopurua jartzeko orduan diferentziak daude. Zerbitzu Saileko teknikariak, web orrian, lizitatuzaileen galderen ondorioz jarritako argitzea aipatzen du non, gauzatzeko epea, 24 astetako dela adierazten den. Honela, epe hau kontutan izan ez dutenei, atal hau ez zaiela puntuatuko jakinarazten da.

C gutun azaleko dokumentazioa Zerbitzu Saileko teknikariari pasatzen zaio baloratu dezan eta Kontratazio Mahaiari dagokion proposamena bideratu dezan.

Eta gehiago barik, amaituzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legeztatuaren dudana.

